

**Helburuak:**

- Emandako gatazken konponbidea proposatzea.
- Auzitegietan gatazkak ebazteko erabiltzen den prozeduraren urratsak ulertu eta ordenatzea.
- Judizioaren garapena azaltzen duen testua ulerterrazago bihurtzea.

**Zertan den:**

Ikastunitate honetan gatazken konponbidea da hizpide. Lehen atalean, gertutik ezagututako gatazken konponbidea akuilu, eskainitako egoeren konponbideak proposatu behar dira, auzitegiz kanpokoak eta barrukoak. Bigarren atalean, auzitegietan gatazkak konpontzeko prozeduraren urratsak ulertu eta ordenatu beharko dira. Eta azkenekoan, aldiz, judizioaren garapena azaltzen duen testu bat ulerterrazago bihurtzeko proposamenak egingo dituzte.

**Prozedura****1****Gatazkak****Atazaurrea: nork bere esperientzia azaldu (20')**

- Ikasleek, taldeka, bizi izandako edo ezagututako azken gatazka kontatuko diote elkarri, konponbidearen berri ere emanez.

**Ikaslearen liburua**

- Zer gertatu zen?
- Nola konpondu zenuten/zuten?
- Auzitara jo behar izan zuten ala bestelako irtenbidea topatu zuten?

**Ataza: hainbat kasu aztertu eta gatazkon konponbidea proposatu (20')**

- Lau taldetan jarrita, liburuan dituzten lau egoeretatik<sup>1</sup> bat esleituko die irakasleak. Irakurri eta proposatu behar dute dagokien gatazkak zer konponbide izan zezakeen auzitegira jo gabe, eta baita ere auzitegira joz gero.

**Ikaslearen liburua**

**1** Bikote batek mendate bateko jatetxe batekin hitzartu zuen ezkontza-otordua, baina gauzak ez ziren pentsatutako moduan atera. Jatetxea argindarrrik gabe geratu zen ekaitzaren eraginez, eta hiru orduz atzeratu zen ezkontzako bazkaria. Ezkonberriak uko egin zioten oturuntza ordaintzeari, eta jatetxeak salaketa jarri zuen. Jatetxeak faktura ordaintzea eskatzen zuen eta ezkonberriek, ostera, kalte-ordaina, kalte moralala jasan zutelakoan.

**2** Eski-pista gorri batean (eskarmentuko eskiazaileentzat prestaturikoan) behera zetorren eskiazaile bat bere bidetik atera zen, haur batzuk ez harrapatzearen, eta bere aurretik zihoan emakumea jo zuen. Biktimak hainbat hilabetez bajaran egon behar izan zuen izandako kalte fisikoengatik, eta horrek galera ekonomikoa eragin zion. Horren ordaina eskatzen dio kolpea eman zionari, nahiz eta ondo dakien, berez, haurrek eragin zutela istripua.

**4** Trafiko-istripu bateko biktimak akordio bat sinatu zuen istripua eragin zuenaren aseguru-konpainiarekin,

**3** Etxebizitza baten jabeak arrisku anitzen aurkako aseguru bat kontratatu zuen, besteak beste, hirugarrenen aurrean zuen erantzukizun zibila babesten zuena. Polizaren klausula murriztaileak jarraituz, ordea, ez ziren "hirugarren" gisa hartuko aseguru-hartzailearen eta aseguratuaren ezkontide, aurreko eta ondorengoak, eta, ondorioz, ez zuten asegurua kontura kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango. Etxebizitzan izan zen sute baten ondorioz, jabearen amaginarreba hil egin zen. Haren emazteak erantzukizun zibilagatiko kalte-ordaina eskatu zion aseguru-etxeari. Aseguru-etxeak uko egingen zion ordaintzeari, asegurua hartzailearen eta aseguratuaren aurreko eta ondorengo familia ez zituela "hirugarren" gisa hartuko zioen klausulari jarraituz

<sup>1</sup> Consumer, 38, 2000.

jasandako lesioen senda-agiria jaso ondoren. Akordio horren arabera, aseguru-etxeak kalte-ordaina emango zion kaltetuari eta trukean kaltetuak uko egingo zion istripuaren errudunaren edo haren aseguru-etxearen kontrako neurriak hartzeari. Geroago, biktimak, lesioak larriagotu egin zirela eta, kalte-ordain handiagoa eskatu zuen. Istripuaren eragileak auzia konpondutzat jotzen du.

- Talde bakoitzak bere proposamenak aurkeztuko dizkie gainerakoei.

#### **Feedbacka: epaiak irakurri eta aurreikuspenekin alderatu (10')**

- Gainerako ikasleek entzundako proposamena bideragarritasuna baloratuko dute.
- Epaiaren berri ematen duten albisteak emango dizkiegu ikasleei, aztertu egin ditzaten (**I. eranskina**): talde bakoitzak dagokiona irakurri eta komentatuko du.

#### **Gramatika eta diskurtsoa (10')**

- Liburuan duten hiztegi-zerrenda osatuko dute.

<b>Zuzenketa-orria</b>	
Juzgado de Paz	Bake-epaitegia
Juzgado de Primera Instancia	Lehen Auzialdiko epaitegia
Juzgado de Familia	Familiako epaitegia
Juzgado de Instrucción	Instrukzio-epaitegia
Juzgado de lo Penal	Zigor-arloko epaitegia
Juzgado de lo Social	Lan-arloko epaitegia
Juzgado de Vigilancia Penitenciaria	Espetxeratuen Zaintzako epaitegiak
Juzgado de Menores	Adingabekoen epaitegia
Audiencia Provincial	Probintzia Auzitegia
Tribunal Superior de Justicia del Pais Vasco	Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusia

- Ikasleek lehen banatu zaizkien albisteetan bilatu beharko dituzte kasu bakoitza zein auzitegitan ebatzi zen.

<b>Zuzenketa-orria</b>
Sutearen eta eski-istripuaren kasuak: Auzitegi Gorena Jatetxearena eta trafiko-istripuarena: Probintzia Auzitegia

## **2**

### **Gatazkak epaitegian**

#### **Atazaurrea: bideo-pasarteko ekintza identifikatu (5')**

- Auzitegitan gatazkak ebazteko prozedura jakin bat dago. Bideo-pasarteko<sup>2</sup> (**DVD 13.1.**) pasadizoan gertatzen den prozeduraren urratsa identifikatu behar dute: salaketa jartzea.

#### **Ataza: gatazkak ebazteko prozeduraren urratsak ulertu eta ordenatu (30')**

- Ikasleek, taldeka, salaketa<sup>3</sup> batek dituen urratsak ordenatu behar dituzte; alegia, liburuan nahastuta dituzten testuak irakurri eta gero, bakoitza dagokion lekuan kokatzen saiatuko dira.

#### **Feedbacka: egindako proposamenak alderatu (15')**

- Talde bakoitzak proposatutako ordena aurkeztu eta arrazoituko die gainerako ikaskideei.

#### **Zuzenketa-orria**

<sup>2</sup> *Senar ohia*, (DB 3382), ETB, Goenkale, 2003.

<sup>3</sup> [www.justizia.net](http://www.justizia.net), Justizian zehar ikusmiran, Nortzuk garen.



Frogak egingo direla segurtatzeko, beharrezko komunikazioak bidaliko dira.

Epaiketa ondo egin dadin, bertan egon behar dute akusatuak eta abokatu defendatzaileak. Hala ere, akusatu bat baino gehiago badago eta horietakoren bat bidezko arrazoirik eman gabe ez baldin bada agertzen, gainerakoekin jarraitzea erabaki ahal izango du epaileak, alderdiei entzun ostean.

Idazkariak akusazioaren eta defentsaren idazkiak irakurriz ekingo dio epaiketari. Jarraian, esku hartzeko txanda irekiko du epaileak, alderdiek egoki deritzotena azal dezaten. Erabakitako frogak egikarituko dira, bata bestearen segidan, eta epaileak, beharrezkotzat joz gero, saioa eten edo atzeratu ahal izango du.

Froga horiek egin ondoren, aurkeztutako idazkietako konklusioak berretsi ala aldatu egiten dituzten galdetuko die epaileak akusazioari eta defentsari, hots, akusatuarentzat eskatutako zigorrak mantendu ala aldatu nahi dituzten.

Defentsaren eta akusatzailearen abokatuei, hala nola Fiskalari, entzun ostean, idazkariak epaiketaren akta egingo du, eta epaileak, idazkariak, Fiskalak eta akusazioaren eta defentsaren abokatuek sinatu egingo dute. Akta horretan, egindako frogak, epaiketako gorabeherak, egindako erreklamazioak eta hartutako ebazpenak jasotzen dira.

Ahozko judizioa amaitu eta hurrengo 5 egunen barruan emango du epaileak epaia.

### **Feedbacka: aurkeztu egindako egokitzapenak eta guztion artean baloratu (20')**

- Elkarri aurkeztu egindako balorazioak eta egokitzapenak eta baloratu egindako lana, liburuko galderen laguntzaz:

#### Ikaslearen liburua

- Zer-nolako aldaketak egin dituzue?
- Zertan datza testuen zailtasuna?
- Horren garrantzitsua al da testuak ulerterrazago egitea?

## TRANSKRIPZIOAK

### □ DVD 13.1.<sup>6</sup>

Iraupena: 0' 00''

<b>Ertzaina</b>	Barkatu, baina zurekin hitz egin nahi zuen eta ezin izan dut gelditu.
<b>Ertzain burua</b>	Ondo da. Beno, Mila, zer?, garrantzizko zer edo zer izango da ezta?, beharrez lepo nabil eta....
<b>Mila</b>	Bai, bai, inportantea da.
<b>Ertzain burua</b>	Ea, ba, ezarri. Zeuk esan.
<b>Mila</b>	Salaketa jarri nahi dut, senar ohiaren kontra.
<b>Ertzain burua</b>	Zer gertatu da, ba?
<b>Mila</b>	Arralden ikusi dut, bart gauean. Epaiak ezarritako muga pasatu du, ez ditu baldintzak bete. Hori esatera nator.
<b>Ertzain burua</b>	Eta zelan gertatu zen?
<b>Mila</b>	Berak ez ninduen ikusi.
<b>Ertzain burua</b>	Baina, zuk bera bai.
<b>Mila</b>	Bai, eta badakit, semearekin, Anartzekin hitz egin duela.
<b>Ertzain burua</b>	Eta noiz?, non?
<b>Mila</b>	Aste... aste pare bat inguru, haren atzetik ibili da.
<b>Ertzain burua</b>	Seguru zaude?
<b>Mila</b>	Oso seguru gainera.
<b>Ertzain burua</b>	Bueno, ba, hori horrela bada, zure semeak hona etorri beharko du testigantza ematera, e?, zuk diozuna baieztatzeko.
<b>Mila</b>	Semea?
<b>Ertzain burua</b>	Bai, bai, hartara zure salaketak indar handiagoa izango luke.
<b>Mila</b>	Beharrezkoa da?, Beno, etorriko da, baina...
<b>Ertzain burua</b>	Baina?
<b>Mila</b>	Baina, nik babesa behar dut. Badaki non gauden, non bizi garen, ulertzen?
<b>Ertzain burua</b>	Zaude lasai, Mila. Zaintzarako epailearekin egingo dugu berba, eta patruilak ere erne ibiliko dira, lasai.
<b>Mila</b>	Mila esker.
<b>Ertzain burua</b>	Hori bai, semea...
<b>Mila</b>	Bai, bai, etorriko da.

---

<sup>6</sup> *Senar ohia*, (DB 3382), ETB, Goenkale, 2003.

### **Aseguru-hartzailearen amaginarreba ez zen "hirugarrena"**<sup>7</sup>

Etxebizitza baten jabeak arrisku anitzen aurkako aseguru bat kontratatu zuen, besteak beste, hirugarrenen aurrean zuen erantzukizun zibila babesten zuena. Polizaren klausula murriztaileak jarraituz, ordea, ez ziren "hirugarren" gisa hartuko aseguru-hartzailearen eta aseguratuaren ezkontide, aurreko eta ondorengoak, eta, ondorioz, ez zuten aseguruaren kontura kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango. Etxebizitzan izan zen sute baten ondorioz, jabearen amaginarreba hil egin zen. Haren emazteak erantzukizun zibilagatiko kalte-ordaina eskatu zion aseguru-etxeari. Aseguru-etxeak uko egiten zion ordaintzeari, aseguruaren hartzailearen eta aseguratuaren aurreko eta ondorengo familia ez zituela "hirugarren" gisa hartuko zioen klausulari jarraituz. Emazteak zioen poliza bere senarrak sinatu zuenez, kalte-ordaina jasotzeko eskubidea zuen hirugarrena zela ama. Bikoteak irabazitako ondasunezko ezkontza-erregimena zuen eta, beraz, biak ziren etxebizitzaren jabeak, eta Auzitegi Gorenak (2000ko maiatzaren 16ko epaian) ebatzi zuen horregatik emazteak ere aseguratu izaera zuela eta polizaren klausula murriztailearen menpe zegoela. Horrenbestez, polizaren baldintzen arabera, hildakoa emaztearen arbaso izanik eta emaztea jabeak eta asegurua zen aldetik, hildakoa (ama) ezin zen hirugarren gisa hartu erantzukizun zibilagatiko kalte-ordaina jasotzeko eskubidearen ondorioetarako.

### **Jatetxean atzerapena ezkontza-otordua ematen**<sup>8</sup>

Bikote batek mendate bateko jatetxe batekin hitzartu zuen ezkontza-otordua, baina gauzak ez ziren pentsatutako moduan atera. Jatetxea argindarrik gabe geratu zen ekaitzaren eraginez, eta hiru orduz atzeratu zen ezkontzako bazkaria. Ezkonberriak uko egin zioten oturuntza ordaintzeari, eta jatetxeak salaketa jarri zuen. Jatetxeak faktura ordaintzea eskatzen zuen eta ezkonberriek, ostera, kalte-ordaina, kalte morala jasan zutelakoan. Lehen instantzian, fakturaren laurdena ordaintzera kondenatu zuen epaileak bikotea eta apelatu egin zuten. Bizkaiko Probintzia Auzitegiak, 1998ko uztailaren 10eko epaian, jatetxeak axolagabekeriaz jokatu zuela eta kontratua ez zela bete erabaki zuen, ekaitza eta horren ondoriozko argindar-etena aurreikusitako saihesteko moduko gertaerak direlako (ekipo elektrogenoa, argindar-hornidura berezia erabiliz). Kontratua oinarrian ez betetze horregatik —bazkaria berandu baina eman egin zen—, ezkonberri eta gonbidatuen artean sortutako frustrazio eta egonezinagatik kalte bat dagoela kontsideratu zuen epaileak, eta otorduaren faktura ordaindu behar izatetik salbuetsi zuen bikotea, kalte-ordain gisa.

### **Akordioa zela eta, erreklamazioari uko egin zion**<sup>9</sup>

Trafiko-istripu bateko biktimak akordio bat sinatu zuen istripua eragin zuenaren aseguru-konpainiarekin, jasandako lesioen senda-agiria jaso ondoren. Akordio horren arabera, aseguru-etxeak kalte-ordaina emango zion kaltetuari eta trukean kaltetuak uko egingo zion istripuaren errudunaren edo haren aseguru-etxearen kontrako neurriak hartzeari. Geroago, biktimak, lesioak larriagotu egin zirela eta, kalte-ordain handiago eskatu zuen. Malagako Probintzia Auzitegiak ezetsi egin zuen bere eskaera. 1999ko irailaren 8ko epaiak dioenez, desadostasunak adiskidetasunaren bidetik konpontzen dituen kontratua da akordioa, bakearen izenean egindakoa eta, akordio horren ondorioz, eskubideen zati bati uko egiten zaio. Bestelako ekintzei uko egiteari dagokionez, etorkizunekoez ari da. Gainera, Kode Zibileko 1806. artikulua arabera, transakzioa epai irmo baten parekoa da. Aztertzen ari garen kasuan, Auzitegiak dio argi dagoela biktimak uko egin diola istripuaren ondorioz dagozkion ekintzak burutzeari eta, beraz, ezin dela onartu kalte-ordain handiagoa

<sup>7</sup> *Aseguru-hartzailearen amaginarreba ez zen "hirugarrena"*, Consumer, 38, 2000.

<sup>8</sup> *Jatetxean atzerapena ezkontza-otordua ematea*, Consumer, 19, 1999.

<sup>9</sup> *Akordioa zela eta, erreklamazioari uko egin zion*, Consumer, 31, 2000.

eskatzea. Eta azalpen hau ematen du: eskubide edo ekintzei uko egiteak salbuespenen bat izan dezan, hala jasota utzi behar da transakzioa egiteko unean.

### **Haurrak ez harrapatzeagatik, eskiatzaile bat jo zuen<sup>10</sup>**

---

Eski-pista gorri batean (eskarmentuko eskiatzaileentzat prestaturikoan) behera zetorren eskiatzaile bat bere bidetik atera zen, haur batzuk ez harrapatzearren, eta bere aurretik zihoan emakumea jo zuen. Biktimak hainbat hilabetez bajaran egon behar izan zuen izandako kalte fisikoengatik, eta horrek galera ekonomikoa eragin zion. Horren ordaina eskatzen dio kolpea eman zionari, nahiz eta ondo dakien, berez, haurrek eragin zutela istripua.

Lleidako Probintzia Auzitegiak, 1999ko azaroaren 4ko epairen bidez, bidezko iritzi zion erreklamazioaren egileari kalte-ordaina ematea eta baja egun bakoitzeko sei mila eta bostehun pezetako kopurua ezarri zuen(877.500 pezeta). Auzitegiak honako argumentua baliatu zuen: eskia arriskuko kirola izanik, eta kirol hori egiteak arriskua onartzea dakarren arren, demandatuak ez zuen behar adina arreta jarri kolpea saihesteko, izan ere, haurrak ez harrapatzea helburu izateak ez du kentzen pistako beste erabiltzaileekin ere arreta bera jarri beharra. Lleidako Probintzia Auzitegiak dio eskia praktikatzan duenak arriskua borondatez bereganatzen duela eta horrek ez duela esan nahi kirol hori edozein modutan eta arretarik gabe praktika daitekeenik.

---

<sup>10</sup>*Haurrak ez harrapatzeagatik, eskiatzaile bat jo zuen*, Consumer, 32, 2000.

**Agentea:**

Judizioan, aretoa zaintzeko eta zainarazteko eginkizuna du. Epaileari eta idazkariari laguntzen die, hauek eskatzen dioten guztian: aretorako deiak entzunaldi publikorako, judizioko parte-hartzaileak eta publikoko jendea antolatzea, judizioko aktaren kopia banatzea, etab.

**Peritua:**

Epaitegiei laguntza teknikoa ematen die, bere jakintzagai profesionalen inguruan.

- Auzitegiko medikuak
- Psikologoak
- Psikiatrak
- Kaligrafoak
- Ibilgailu-tasatzaileak
- Arkitektoak, etab

**Lekukoak:**

Judizioko alderdiek, akusatuak nahiz akusatzaileak, beharrezko iruditzen zaizkion lekuko guztiak dei ditzala eskatu ahal izango diote epaitegiari; lekukoek prozeduran deklaratuko dute ezagutu edo ikusi dituzten gertakariei buruz, akusazioen defentsan edo haien deklarazioak berretsiz. Epaileak zititzen ditu lekukoak, eta agertu ezean Legeak ezartzen dituen ohartarazpenak ematen dizkie aditzera. Egia esateko obligazioa dute, eta, bestela, lekukotza faltsuaren delitua egingo dute.

**Akusatua**

Epaizten diren delituak egin, estali edo egiten lagundu izana egozten zaion pertsona da.

**Abokatu defentsaria:**

Zuzenbidean lizentziatua izaten da, eta demandatuaren edo akusatuaren zuzendaritzan eta defentsan jarduten du era guztietako prozesuetan; halaber, aholku eta gomendio juridikoak ere ematen ditu.

**Akusazioko abokatua:**

Zuzenbidean lizentziatua izaten da, eta demandatzailearen zuzendaritzan eta defentsan jarduten du era guztietako prozesuetan; halaber, aholku eta gomendio juridikoak ere ematen ditu.

Beren eginkizunetan, askeak eta independenteak dira, fede onaren printzipioari lotzen zaizkio, sekretua gorde behar dute beren jardun profesionala dela-eta ezagutzen dituzten egitate eta berri guztiei buruz (sekretu profesionala), eta ezin daitezke behartuak izan horiei buruz deklaratzera.

**Fiskala:**

Fiskalak Justiziaren lana sustatu behar du, legezketasuna, herritarren eskubideak, eta legeek babestutako interes publikoa defenda daitezen; ofizioz edo interesatuek eskatuta gauza dezake fiskalak eginkizun hori. Era berean, auzitegien independentzia berma dadila eta auzitegietan gizartearen nahia bete dadila zaindu behar du ( BJLOko 435. art.).

**Idazkaria:**

Epaitegiko idazkariak ekitaldi judizialen fede publikoa ematen du, eta epaileari haren eginkizunetan laguntzen dio. Judizioan, akta egiten du, eta gertatutako guztiaren fede ematen du. Idazkari judizialen kidegoan sartzeko, Zuzenbidean lizentziaduna izan behar da.

**Epailea:**

Judizioan aurkeztutako froga guztiak aztertu ondoren, ebazpena ematen du eta ebatzitakoa betearazteaz arduratzen da.